

2015 UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Enpresaren ekonomia

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.
Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

EROSKIK LANKIDETZA SENDOTU DU ALIDIS-EKO BAZKIDEEKIN

Eroskik indartu egin du Frantziako Les Mousquetaires enpresarekin eta Edeka alemaniarrarekin duen ituna. Itun horren ondorioz, Alidis nazioarteko erosketa-zentrala sortu dute. Erosketa-zentral hori, gaur egun, hirugarren postuan dago Europako **banaketa**-enpresen artean, Coopernic eta Carrefour-en atzetik. Izan ere, Alidisek Europako 10 herrialdeetako 17.000 saltokiri zerbitzatzen die, eta jotzen du aurten % 2,75 igoko duela **fakturazioa** eta gutxi gorabehera 74.350 milioi eurora iritsiko dela.

Alidiseko bazkideek elkarren arteko lankidetzaz handitu nahi dute etorkizunean, baina baztertu egin dute beren arteko **bat egitea (fusioa)**.

Itunari esker, abantaila garrantzitsuak lortu dituzte nazioarteko erosketetan. Hala, beren bezeroei produktu **lehiakorragoak** eskaintzea lortu dute. Dacostak, Eroskiren arduradun nagusiak, dioenez, *“Alidisek, kooperatibaren independentzia mantentzeaz gainera, prezioetan ere deskontu garrantzitsuak izatea ahalbidetu du”*. Esate baterako, Eroskiri % 22 merkatu zaio drogeria eta lurrin-produktuen kostua, eta % 6 esnekiena. Eroski Espainiako saltokien **merkatu-kuotaren** % 10era iritsi da.

Galdekizunak:

- Azaldu eta iruzkindu testuan azpimarratuta agertzen diren hitzen esanahia.
- Zer da erosketa-zentral bat? Zer helburu du?
- Azaldu ezazu zer modu dauden enpresak hazteko.

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

LILIA enpresak mugimendu hauek izan ditu bere biltegian:

DATA	MUGIMENDUAK
03-01	Hasierako izakinak: 1.000 unitate, 25 €/unit
03-03	250 unitate erosi dira: 24 €/unit
03-04	500 unitate erosi dira: 24,5 €/unit
03-06	750 unitate saldu dira: 26 €/unit
03-08	500 unitate erosi dira: 25 €/unit
03-10	600 unitate saldu dira: 27 €/unit

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoak erabiliz, eta kalkula ezazu bukaeran zenbat unitate izango diren eta zer balio izango duten.



A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

GERTU enpresak emaitza hauek lortu zituen iaz:

- Urteko salmentak: 35.000 unitate eta 1.400.000 €-ko fakturazioa.
- Jardueraren kostu finkoak 140.000 € izan ziren urte horretan, eta kostu aldakorrek 700.000 €.

Datu horiekin:

- a) Zein da enpresaren itopuntua edo errentagarritasun-atalasea? Egin ezazu dagokion adierazpen grafikoa, eta azaldu ezazu zer esan nahi duen.
- b) Aurten 2.000.000 €-ko salmentak aurreikusi badira eta salmenta-prezioa mantentzen bada, zenbatekoa izango da aurtengo emaitza ekonomikoa?
- c) Kostu finkoak % 20 jaisten badira eta sarrerak 1.000.000 € badira, zenbatekoa izango da emaitza ekonomikoa?
- d) Enpresak 6.500 unitate ekoitziz gero, zer preziotan saldu beharko ditu ekoizpen-kostuak estali ahal izateko?

A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

Marmelada-ekoizle batek ontziak erosi eta biltegiratu egiten ditu. 1.000 ontziko segurtasun-stocka mantentzen du, produkzio-prozesuan astean 1.000 ontzi kontsumitzen ditu, eta, eskaera egiten duen bakoitzean, hilabeteko kontsumorako eskatzen du.

Ontziak eskatzen dituenetik ekartzen dizkioten arte 2 aste igarotzen dira (hilabetea = 4 aste, urtea = 52 aste).

Kalkula itzazu:

- a) Eskaera-puntua.
- b) Batez besteko stock-maila.
- c) Errotazio-indizea.
- d) Bigarren eskaera behar den baino 4 egun geroago jasoko balitz biltegian, zer egoeratan legoke biltegia? Produkzio-prozesuan aurrera egiteko gai lirateke?
- e) Egin irudikapen grafikoa.

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1 puntu

Defini itzazu kontzeptu hauek:

- Aktibo korrontea.
- Maniobra-fondoa edo maniobra-funtsa.



B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Enpresa batek bi proiektu ditu, eta bien artean hautatu behar du zer inbertsio egin.

1. inbertsioa: Hasieran, 50.000 € jarri behar ditu makina bat erosteko. Hurrengo hiru urteetan, kutxa-fluxu hauek lortuko ditu, hurrenez hurren: 30.000 €, 40.000 € eta 10.000 €. Bigarren urtean, 10.000 €-ko mantentze-gastuak ordaindu beharko ditu, eta hirugarren urtearen bukaeran, makina salduta, 5.000 €-ko hondar-balioa lortuko litzateke.

2. inbertsioa: Hasieran, 60.000 € jarri behar ditu piezak egiteko makina bat erosteko. Hurrengo hiru urteetarako, aurreikuspen hauek ditu: urtero 1.000 pieza ekoiztea, eta pieza bakoitza 50 €-an saltzea. Pieza horiek egiteko, unitateko 23 €-ko kostu aldakorrak ditu, eta 2.000 €-ko kostu finkoak.

Inflazioa kontuan hartu gabe, eskaturiko errentagarritasuna % 5 da, baina % 3ko inflazio-tasa metatua dago.

Kalkula itzazu:

1. Zein inbertsio aukeratu behar luke balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
2. Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-epearen (Pay Back) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
3. Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

BETIKOGI Koop. Elk. enpresak ogia egiten du, eta 2012. urtean datu hauek izan ditu:

- 21.000 €-ren irina erosi eta kontsumitu du, eta, biltegian, batez beste 978 € balioa duen irin kantitatea mantendu du.
- Ogi-salmentak 229.900 € izan dira, salmenta-prezioan baloratuta.
- Ekoizpen-prozesuan izandako produktuen balioa, batez beste, 3.500 € izan da.
- Bezeroek, batez beste, 23.790 €-ko zorra izan dute enpresarekin.
- Urteko ekoizpenaren balioa, kostuaren arabera, 43.700 € izan da.
- Saldutako ogiaren kostua 184.500 € izan da.
- Hornitzaileekiko batez besteko zorra 2.333 € izan da.
- Biltegian dauden ogien batez besteko balioa 11.400 € da.

Kalkulatu:

- a) Batez besteko heltze-aro ekonomikoa, eta azaldu emaitza.
- b) Batez besteko heltze-aro finantzarioa, eta azaldu emaitza.



B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

AZKARRAGA enpresa aroztegi bat da. 2012ko abenduaren 31n ondare-elementu hauek ditu:

1.	Tailerra kokaturik dagoen pabiloia	347.500 euro
2.	Kutxabanken mailegua, 8 hilabete barru itzuli beharrekoa	6.200 euro
3.	Lan egiteko erabiltzen duen kamioia.....	84.200 euro
4.	Bulegoan dauden altzariak	6.200 euro
5.	Biltegian dagoen zura	16.000 euro
6.	Hartzekodun batzuekin onartuak dituen letrak.....	11.200 euro
7.	Erreserba legalak.....	230.200 euro
8.	Zenbait bankutan kontu korranteetan duen dirua	23.600 euro
9.	Zur-hornitzaileei zor diena	74.200 euro
10.	Enpresak duen eskudirua	2.800 euro
11.	18 hilabete barru bankuari itzuli behar dion mailegua.....	84.200 euro
12.	Ogasunarekin duen zorra	70.200 euro
13.	Zenbait lan egiteagatik kobratzeko dituen fakturak	3.320 euro
14.	Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	291.200 euro
15.	Bulegoan dituen ordenagailuak	2.900 euro
16.	Tailerrean dagoen makineria	660.200 euro
17.	Gizarte Segurantzarekin duen zorra	2.200 euro
18.	Bezeroei kobratzeko dituen letrak.....	23.080 euro
19.	Kapital soziala.....	??????????????

Hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Zorpetze osoa
 - Ibilgetua

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu.

Azaldu itzazu kontzeptu hauek:

- BEZa (balio erantsiaren gaineko zerga)
- Sozietateen gaineko zerga.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
- Iruzur fiskala.

BILTEGI FITXA

ERIZPIDEA:

ARTIKULUA:

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:
ÚNITATE KOPURUA:



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAN ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehentasuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie haiei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoaren analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoaren arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.